


# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

183n. Zenbakia Martia / Epaila  
1994



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## ORREGA'KO AMA

- ZATITU GAITUAN MUGAN
- IPARRALDE TA EGOALDE-ERDIAN
- GUDAREN ETA BAKEAREN  
GOMUTAUGARRI
- EUSKALDUN GUZTIEN LOKARRI

## IZAGIRRE'TAR BERNARDINO

### Franzizkotarra

#### Mendata

Mendata: mendi gaiñean dozuz  
baseri zuri, ederrak,  
garaiaigo zugan sorturiko  
mixiolari argiak.  
Goi jakituriz argitu dabez  
gure Jaunaren asmoak,  
eta edestu gizon arteko  
Barri Onaren kondairak.

#### Enbido.

Ez da emen giro, esan oi dabe sarri askotan gure muslariak.

Bai, giroa, giro bigun eta beroa bear dau sagar loreak, sagar gorri ta gozoak emoteko.

Udabarriko eguzki epela bear dau larrosoondoak lore usaintsuak zabaltzeko.

Berarizko giroa bear izan dabe gure leengo baserrietako mutiko eta neskato bigunak euren etorkizuna egiteko, naiz jakituri zelaietan, zein eliz-gaietan eta gizarte-arazoetan.

Izagirre'tar Bernardino aitak, Mendata'ko baseri baten jaiok (1870), giro egokia izan eban Franzizkotarren artean eskolarik onena, azierarik bikaiñena, eta buru argitau sakonena artzeko.

Amairu urtedun zalarik, beste lagun batzuekin, Peru'ra etorri zan.

Barriro esan bearko: beste giro bat, beste mundu bat.

Euskal erri txikietatik emengo lurralde zabaletara etortea, munduaren irudi barria artzea dozu. Gogoa, biotza, irudimena, izate osoa bereziki zabaltzen dira emen.

Giro eta lurralde onetan sustraituko da sakonkiro gure Eusko seme gaztea, eta ementxe ekingo dautso su ta gar bere bizibide barriari.

#### Idazlaria

"Geroa, alperraren leloa", esan oi dogu gure artean. Geroa ta etorkizuna, urre gorrizko etorkizuna, gizonaren esku dago. Gizon bakoitza da bere etorkizunaren egillea eta jabea, bere aukera eta askatasun osoagaz.

Argi ta garbi ikusten da ori aita Izagirre'ren bizibidean. Jaunagandik datorkion etorri ederrari ezarriko dautso eguneroko indar barria.

Bere buruaren argitasuna, ikasketari ekiteko zaletasuna eta jakintza arazoetarako gaitasuna ikusirik, bere nagusiek

Erroma'ko San Antonio Ikastetxe Nagusira bialtzen dabe, teolojia goi ikasteak egitera.

Barriro be Peru'ra biurturik, emengo Franzizkotarren etxeetan nagusitza artu bearko dau. Bere aginpiderik garrantzitsuena: Probintziala izatea zati on baterako (1918-1928).

Bolivia, Chile ta Ecuador'en Franzizkotarrak daukezan praille alkarteai eliz ikustaldia egiteko agindua apaltasunez arturik, ondo baño obeto bete eban eginbear ori.

Baña gure aita izagirre'ren goi argia, etorri-aldia, idazlari eta edeslari izatea dogu.

Erriaren kondairan ikusiko dau beti errien izate eta izakeraren muiña ta mamiña. Kondairaren bidez erriaren erroetan murgilduko dau bere burua.

Izan be guztiz bearrezkoa da ori eliz eta kristau jardunak burututzeko. Izagirre'k idatzitako liburuak amazortzik gora dira.

Libururik mardulena, benetan, auxe dogu: "Historia de las misiones franciscanas y narracion de los progresos de la geograffa en el Oriente Peruano".

Amalau liburu onetan sakonkiro azaltzen dira 1619 garren urtetik asita, 1921 garren urterarte, lurraralde onetako oiturak eta jazoerak, erri auziak eta jakintzak, larrialdiak eta bearraldiak.

Eta, batez be, mixiolarien egunariak, kristau sinismenari eta bizitzari buruz egiñiko ekiñaldi goragarrienak, eta beste ainbeste idaz-lan eta agerbide jakingarriak.

Olako idaz-lan sakon eta mamintsuak egiteko oso bearezkoa da Kondairaren iturburueta joatea. Aita Izagirre'k ikasaldi sakonak egin zituan Sevilla'ko "Archivo General de las Indias", liburutegian.

Liburu baliotsu orreik argitaratzeko gogo berroz erre ebazan egunak eta gauak. Aita Manuel'egaz batera oiñez eta erreka ibilliko da Ukayali'ko Mixio bazterrak ezagutzen eta aztertuten. Modu ontan batu ebazan Okopa'ko Museorako erti-lanak.

Ekintza goragari oneik dirala ta "Lima'ko Geografia Lagunartean", partekide aipatua izan zan. Eta bere izena gorenko maillan ibilli zan, bai Peru'ko eta bai nazio-arteko aldizkarietan. Aita Izagirre'ren omenez esan daikegu:

"Goi jakituriz argitu zitun / gure Jaunaren asmoak  
eta edestu gizon arteko / Barri Onaren kondairak"

Mendata'ko seme jatorra, idazlari ta edeslari ospetsua Lima'n il zan (1943).

# 1993n. URTEKO EKINITZAK

Gabon, Jaun-andreok:

Urtero egiten dogun lez, 1994'ko Urtarrilla'ren Oiko Gure Bartzar Nagusia, eretia da, igaz egindako ekintzen azalpena emoteko gure erakundearen bazkideek, burututakoak ezagutu dagiezan, banan-banan azaltzean.

## Euskal Ikastaroa

Aurtengoa, oi dogun lez, igarotako Urrilla'n asi zan, eta pozez beterik adierazo bear dogu, azken urteetako ikasleen kopuruak irauten dauala, eta au ez da gitxi, leku guztietako ikasleen berakadea agiri danean batez be.

## Euskal Astea

Azilla'ren 15'ganean asi genduan gure Euskal Astea Eskolapio-tarren areto txukunean, eta augaitik ez neuke ezelan be, etxe orren lekaideai gure eskorronik adeitsuena agertu barik laga, euren laguntzagaitik. Ona emen, gaiak eta izlariak.

15'ganean.- "Kolon eta Euskaldunak" - Olazar tar Martiñ'ek.  
 16'ganean.- "Odolaren RH ta Euskaldunak" - Arrinda'tar Anes'ek.  
 17'ganean.- "Arana Goiri'tar Sabin" - Oñatibia'tar Manu'k.  
 18'ganean.- "Gernika'ko batzarrak eta Bizkai'ko Jaunak" - Arrien'tar Gregorio'k.  
 19'ganean.- "Euskaldunen Abizenak" - Zubikarai'tar Agustiñ'ek.  
 Gai entzungarri orreitara entzule asko etorri zan, eta onek adozten gaitu, Euskal Astea urte guztietan atontzera, aal dagigun artean. "ZER" gure illerokoan, agertuko dira osorik emondako gaiok.

## Ipuin-sariketa

Lengo urtea amaitu aurretik, urtero dei egiten dogun Ipuin-Sariketea atondu genduan. Artutako lanak onak eta ugari izanik, epaimaiari batzutan ez yakon erraza eritxia emotea. Ona emen, sarituen erreskadea ta lanak.

1'goa - Goikoetxea'tar Iñaki - "Beotibar"  
 2'gna - Bergaretxe'tar Yon Yoseba - "Enara"  
 3'gna - Legarreta'tar Asier - "Pago Mari"  
 4'gna - Arrinda'tar Anes - "Gernika sutan"  
 Sariak oneitxek izan dira:  
 40.000 - 30.000 - 20.000 - 10.000 eko.

## Egutegia

Igaz be, aurtengo egutegia oiko taldeak atondu eban. Argitalpena Bilbao Bizkaia Kutxa'ren pentzuan izan da. Aleren bat nai izatekotan, ugari diran BBK'ren idaztegieta eskatu.

## "ZER" aldizkaria

Barriro be, beste urteetan esan dogun lez, euskeraz jabetu dira-

nek, gure bizkaierarekiko oiko bazterpen eta aztutze ulerteziña erakusten jarraitzen dabenean, iñoizkorik bearrekoentzat joten dogu, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarrari eustea, eta olan jarraituko dogu Jaungoikoak lagun, aal dagigun artean beintzat.

Negargarria da euskeraz jabetu diranen jokabidea, baiña areago negargarriagoa bizkaitarron oztasun eta arduraeza, arbasoakandik jarauntsiriko euskera aberatsa ta ederra galtzen ikustea, guretzat zer-ikusirik ez bai'leuan. Basamortuan aldarrikatzen dauan abotsa izan arren be, beti ta nonai dagokien erakundeai adierazako dautsegu gure salakuntzea.

Izango ete gara gai bizkaitarrok jarauntsiriko euskerea, gure eskuakaz lurperatzeko, ezer esan barik, iñongo osterarik egin barik, iltegiara daroezan bildotsen antzera...? Non da gurre gizentasuna, amarekiko maitasuna ta abertzaletasuna...?

Biarko malkoek ez dabe gure izkuntza bizitzara ekarriko, ezta gure pekatua barkatuko be. Euskotar guztiok, jagi zaitezte bidebakokeri ta irain orren aurka...!

Eta beti lez, Olazar'tar Martiñ'en zuzendaritzapean argitaratzen dogun illeroko oneri, bialdu zuen idazlanak, bizirik irauten dogun ezaugarritzat, euskera bizi, errikoiaz idatzita.

## Liburu-Azoka

Oi dogun lez, Gabonilla'ren asieran Durango'n ospatzen dan azoka onetan tartekoak izan gara Euskerazaitza'ko gure adiskideekin batera.

Barriro be esan bearrean naz, orretarako erabilten dan lekua, oso txiki ta ezegokia dala, erakusten dan idazti-kopuruarentzat. Oraingo bikotxa ba'litz, askozaz andiagoo izango litzake azokearen arrakasta.

Edozelan be, polito saldu dira gure liburuak, eta onek adozten gaitu urrengo baterako.

## Laguntzak

Guretzako laguntzarik ederretsiena, arpedunakandik artzen dogun diru-laguntzea da. Badira be, nagitasunez geienetan, urteko arpide-saria bialtzen ez dauskuenak, eta onei eskatzen dautsegu gogoan artu dagiela, gure ibillera ta ondoreak orreri lotuta dagozala.

Edozelan be, bioakie gure eskerrik beroena Bizkai'ko Foru Aldundiaren Kuntur-Saillaren arduradunai, euren betiko laguntzari zor dautsagulako len aipatutako ekintzak burutu aal izatea. Bardin, eskertzen dautseguz BBK'tik eta Bilbao'ko udaletik artutakoak.

Besterik ez, Jaun-andreok.

ZUBIRI'TAR IÑAKI

1994'ko Urtarrilla'ren 27'ganean.

---

# INAKI GOITIA

---

Artea, jakituria, jolasa alkarren lagun aundiak dira. Giza-semeak sortzetik artu ditu gai ta almen eder onek. Berezkoak dira, beraz, gizonaren ta gizadiaren bizitza artekotasunez, ondo, joan al izan dedin.

Almen onek gizadiari emon eutsezanak, ondo ekian gure beiar-izanen barri, ta gizona, ondo, orniduta itzi eban, bizitza eder bat zuzentasunez ta alaitasunez egin al izan egian.

Gure erriaren gauz bi aitatuko ditut lantxo onetan, gure pelotariak ta euren izkuntza ederra.

\*\*\*

### **Pelota jokoa ta izkuntza**

Pelotarien arteko erritarra naz. Ta suberte onegaz ez naz lotsatuten, poztu egiten naz.

Jaiotzaz auzoan bertan, ezagutu izan nituan gizandi izan diran zezta puntako palotariak Marzekino Bereziartua, Gonzalo Larrozkain, Segundo Zelaia, Txutxo Larrañaga ta abar...

Gizon oneik euren gazte aldian, palota kultura bidez Euskalerrria agertu eben munduan zear: Kuban, Mejikon, Txinan, Italian, Ipar Ameriketn ta abar.

Gizon oneik, ondo, goraldtu eben euren jatorria; munduko pelota toki ospetsuetan ibili ta dabil gure pelotarte ta izkuntza zoragarria.

\*\*\*

### **Munduaren egaletan**

Biok dira jatorrak, biok dira ederrak. Pelota jolasaren bidez, euskaldun gazteak Euskalerrriaren izena ta izana agertu zituen pelota tokitik pelota tokira munduan.

Gizontasuna, egizaletasuna, pelotarako arte ta trebetasuna agertu eutsezan jendeari. Era ortan, beste euskaldun askorekin baten, gure erriaren izatezko zentzuna zabaldu eben lurraren egaletan.

Ori dala-ta, antxe, dago munduaren egal askotan euskaldunaren izaera zentzunez ta gizontasunez oiñarrituta.

Gaur egunean be, batean bestean, zentzun ederdun euzko pelotari asko dabil mundu zabalean.

Zorionak euzko pelotari orrei, batetik zeuen izena zaintzen dozuelako, bestetik zeuen sorterriak, ondo merezi dabelako bere nortasunaren izen ederra.

\*\*\*

### **Izarrak lez ederrak**

Nik, emen, aitatu nai neukena Allustiar gazte jator bat da. Lengo batean zezta-puntako nor-geiagoa egikeran, nagusi urten ta telebistara eroan ebena.

Izarrak ortzi urdiñean, dizdiz, egiten dabe. Ta olako gau eder baten izarrak ikustea, benetan, zoragarria da, euskaldun pelotarien giroa gogoratzea ederra dan legez.

Izar guztiak ez dira bardiñak, batzuk aundiago ta beste batzuk txikiagoak ta bakoitzak emoten dau bere almenaren eran argitasuna.

Giza-semeak be, alantxe, dira, bakoitzak artu ta landu dituan almenen eran, argi egiten dabe munduaren aurrean. Gure Iñakik, emen ikusiko dogunez, almen ederrak artu izan ditu ta Allustiar jator bateri dagokion eran, onartu ta landu ditu sortzez artu izan dituan almen bikain orrek.

\*\*\*

### **Alkar izketa**

Neure eretxia bakarrik emotera ez nator, beste batzuei entzunikoa, ain gozatsu sartu izan jat neure buru barnera.

Nire belarrien zoramena zan, gazte ori dala-ta, euren eretxia entzutea.

Onen bitartez beste gauza bat be agertu nai neuke, euskaldunen artean zera, egia ta ona zer diran ikusten ba-dakie. Iru gauz eder onek, izan bere, gauz eder bat osotzen dabe.

Orain guazen alkar-izketa zoragarri artara. Une eder artako galdera-egillea Euzkitze entzutetsua zan; bertsolari punterengoa, ona ta ezaguna.

Nire errian ba-da Euskitze izeneko baserri bat. Mendi gaiñean dago, ta ain zuzen bere, sorkaldeko eguzkitara begira. Ortik atara kontua Euzkitze izena daroan gizon batek zelakoa izan bear dauan. Eguzkia...

\*\*\*

### **Euskal Telebistan**

Emen, dator orain, galderei erantzun eutsen pelotari gaztea, egokiro, autatuta, Allustiko semea.

Allusti, zorionez, Bizkaiko lurraldetan erri bitxi bat da. Arkaitz, mendi, zelai ta baserri ederrak lurraren espaldetan ditu, urretxindorrek ba-litzaz legez dagoz eguzkitara begira.

Lurrak, arkaitzak, mendiak, ibai ta zelaiak euren sen pizkat ezarri bear deutse euren seme-alabei, ta esan dogun au, egokiro, agertu zan gure pelotariaren gora-bera ontan.

Euzkitze agertu zan. Beti legez gizontsu, euskal telebistan. Ta or bereala, non, datorren mutil gazte bat pelotari garailaria.

Lenen lenengo agertu zana da gazte bat, goitik beraiño Allustiko arkaitzak legez lerden, argitsu, akatsik bagea.

Arkaitzak eurenganatz tiratuten deuskuen antzera, gazte onek be ikusle guztiak bereganatuta adi adi, eukazan.

Izan bere, zentzuna ta gizatasuna apaltasunagaz batean gizonaren lorerik ederrenetarikoa dira.

Arroak eta kirtanak atzerantz eragiten deuskue, euskaldunak, ondo, dakien legez.

\*\*\*

### Allustiarra ta euskera

Alkarrizketa, punturik puntu, irabazten joian, geroago ta arduratsua. Gatza emoten jakin bear, edota bestelan, edertasuna, berez, urten bear.

Gure Iñaki Goitiak Allusti bere berea dau. Iñoz ez dautse ukorik egin mendi, zelai, arkaitz ta gallurrari. Obeto esan da, maitekor jakoz Euskalerrriaren bazter atsegingarriak.

Ori dala-ta, mendi ta arkaitzak euren eder sena ezarri deutsoe mutil gazteari ta Iñaki Allustiarra eder ori, berez, agertzen eban millak lagunen aurrean.

Baiña guztien goitik, ba zan an beste pitxi eder bat, ta au zan euskaldunen izkuntza, euskera zoragarria.

Mutil onen jasa ikusi ta euskera entzunda, Euzkitze barri barritu egin zan, arako Tabor mendian Jesus antzaldatu egin zan antzera ta eguzkia legez, dizdiz agertu gizonen aurrean.

Apostoluak maite-minduta geratu ziran euren maisue, alan, ikusirik.

\*\*\*

### Eredu bikaiña

Au ez diñot neurez bakarrik, beste askoren eretxi ederra bardiña izan da. Ta Euzkitze bera be, alantxe egon zan, iñoz ez legez, barrez-barrez, pozik entzuten.

Izan bere, euskeraren jakituri, nortasun ta edertasunak munduko elerti-zale jakintsuak arrituta, beti itzi izan ditu.

Ta ona emen, pelotari mutil gaztea Bizkaierazko izkuntzan, literatur onenaren antzera, ezereen bildurrik bage, gaztedi guztiaren eredu bikain jarteko eran ikusi genduan.

Izkuntza akats barik josi eban, berbea aozkatu euskal sen gozoenagaz, ta euskera bere ederra izlari edo idazlari prestu batek egin leiken era ederrekoa.

**PAULIN**

### Baserria

Zure gerizak Euzko-mendiak  
Apaintzen ditu, pozkarri;  
Zure zimendu, Erri-zentzuna,  
Izan bearrez egarri.  
Zauritu dira zure errariak  
Etorkizunaz urduri  
Zure babesa galtzen badogu  
Umezurtz dogu Aberri.

Gure oituren seaska zintzo,  
Euskerearen oiñarri.  
Kea zerurantz daritzu artez  
otoitz bigun eta guri  
Gabon aldian Salbatzalleaz  
Grazia dozu opari  
Zorionezko agur beroak  
Izan egizuz ugari.

**AURRE'TAR ANTON**

### IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

## ENARA

KULUNGA deritzaio, an Aprikan, dagoen erri bateri.

Uri aundi xamarra. Mixio-lurra oraindik, eta bertan, iru josulagundiko ari ziran lanean. Irurak euskotarrak.

Euren eginbearretan laguntzeko, bazituzten lekaimetxo batzuek ere, oietan batzuk bertan jaoak, besteak atzerritik etorriak.

Mixiolarien egitekoa beti dago eragozpenez eta arazoz bete. Orrela zan aiena ere.

Alde batetik, Kristautasuna berez dalako zailla, eta bestetik, mixio lurretako biztanleak —sarri beintzat— atzerritarren kontutzat begiratzen dutelakko.

Orregatik, ia egunero igarotzen ziran talde mordoxkak, kaleak zear, mixiolariari andik alde egiteko ojuka eskatzen, euren etxera juateko ta abar, deadarka.

Bañan lagun zituztenak ere agertzen ziran, ez juateko eskatzen. Auek ZUEN IKASTOLEN BEARRA DUGU! ZUEN ERITEGIAK MAITE DITUGU! Geldi gurekin! deadar egiten zuten. Auen artean emakumeak ziran ugarietak, aurrak eskutik edo besoetan zituztela.

Orrela zijoazen batean, jende taldetik, emakume bat atera zan eta bere mutiko txikia eskutik zuala, josulagunen ikastolara bidea artu zuan zuzen-zuzen.

Eldu zanian, jotzen du atea eta Aita Iñaki atera zitzaion. Eta emakumeak beste gabe- zera esaten dio: Nere semetxo onekin nator... ikastola ontan artuko bazendu...

Etorri barrura -erantzun zion irakasleak, argi-argi.

Ordukoz, etzuten itz askorik egin. Aurraren eta gurasoen izen-abizenak eta euren zuzenbidea agertu ondoren, laster zan emakumea berriz kalean, eskerrak eman eta mutikoa an utzi ta gero.

Aita Iñaki'k bereala izentatu zion oneri bere aulkitxoa. Antxe jarrita egoteko, esan zion, besteak zer egiten zuten begira. Beltx-beltxa zan bera, eta ille kixkurra. Bere bi begiak berriz, txinpartak ziruditen. Enara zun izena.

Urrengo egunean, Aita Iñaki'k paper zuri bat eta arkatx bat eman zizkion, esanaz: Marraztu emen nai dezun guztia. Bai egiñ ere azkar mutikuak. Laster zan, bere aulkitik jaiki eta dana zirriborroz betetako papera eskuan zuala, Aita Iñaki'ren aurrean. "To!" —esan zion oneri— Onek "oso ederki"! erantzun, eta beste ingi zuri bat eskeiñi zion, esanaz: Bete au ere!

Bai egiñ ere egundoko azkarren. Bañan mutikua ezin zan geldu egon, exerita bere aulkian. Ixilka-mixilka bada ere, an asi zan bere ingurukoeri galdezka: Ori zer da? Beste ura zer da?... Izan ere, bere amak gauza berriak ikustera eraman zuan etxe artara, eta... jakiña!, arek galde ta galde. Dana baitzan berria arentzat, dana ikasi bearrekoa.

\*\*\*

Urriak aurrera eta gure Enara ere aurrera zijuau, naiz gauza berri asko ikasten, naiz mutiko jator biurtzen.

Amalau urte zituan dagoneko, eta prantzez izkera ederki egiten zuan.

Izan ere, euren aberrian, izkuntza ori egiten zutenen mende-  
an egona zalako, anitz ziran auen berbeta egiten zutenak.

Orregatik, ikastolan ere, etxeko izkuntzaz gañera sarri erabiltzen zuten, batipat, ikasgai, berexiak erarkusteko edo ikas-  
teko bear zutenian.

Egun batez, ar<sup>s</sup>iturik gelditu zan Enara, Josulagunen elizan, ospakizun bereizi batera juatean.

Bai. Lekaimixiolari berri batzuk eldu zirala-ta, Jaunari eskerrak emateko, antolatu zuten jaian. Meza bukatu ondoren, iru apaizak eta lekaimexk batean, abesti eder bat abestu zuten, euren abots bikaiñegaz. Iñazio abestia, alegia.

Erne egon zan Enara, zearo bukatu arte. Gero Aita Iñaki'gana urbidu eta galde au egin zion: Ze izkuntzatan abestu dezute azkeneko kantu eder ori? -Zera, erantzun zion, gure izkeran, euskeran. Enarak orduan:

Ori al da zuek alkarrekin egiten dezuten izkera?

Bai, erantzun zion Aita Iñaki'k.

Oldozkor gelditu zan mutilla, bañan andik laster, berriz galde:

Eta nik ikasiko ote nuke berbeta ori?

Zer erantzun asma eziñik utzi zun gure josulaguna, bañan geroxeago, onela esan zion Enara'ri: Ikasi, ikasi, bai, gure errira bertara juan ezker, bañan emen zailla iruditzen zait, ondo atxikitzea. Euzkadi'ra juan bear, eta ori...

Or amaitu zan orduko alkar-izketa, bañan naiz Aita Iñaki'k, naiz mutikuak etzuten aaztu ta baztertuta utzi arazoa. Andik aldi batera, Aita Iñaki'k Enara'ri deitu eta onela galdetu zion:

Naiko al zenduke benetan Euskera ikastea?

Bai, arek erantzun.

Eta ori lortzeko, Euzkadi'ra juatea?

Nola ez ba? Baña ortarako diru asko bearko da, eta nik ez dut sosik ere.

Ez estutu orregatik. Nik antolatuko det arazo ori.

\*\*\*

Ontan da ortan, Enara amabost urte betetzera eldu zan, ikastolako ume-aldia amaitu eta bizibide bat artu bearrean. Oraindik ezer aukeratu gabe zegoen nekazari, eskola-maixu... zertan asi?

Arabera ontan, egun batez, Aita Iñaki'k deitu eta bapatean, onela mintzatzen zaio gazteari: Ni, alditxo baterako, neure aberri Euzkadira nijua laster. Nai al dezu, nerekin, lur aiek ikustera etorri?

Bai orixe! Itxoin gabe, erantzun Enara'k. Eta Aita Iñaki'k:

Esan amari eta jarri gertu. Emendik iru bat astera, urtengo degu-ta.

\*\*\*

Aita Iñaki'k erabaki lez, egaztada bi edo iru egiñ ondoren, Aprika'ko lurrak utzi eta Bilbo ondoko egazkin-kaian arkitu ziran, berealako azkarren. Gure mutikua txoraturik eldu zan Euskalerria.

Onera iritxi ta gero, lenengo egunak, beribil bategaz, emengo basterrik ederrenak ikustatzen igaro zituzten: Arantzazu, Begoña, Estibalitz, Xabier, Orreaga eta bitarteko lurralde zoragarriak. Enara etzan zoratu, Jainkuak nai ez zualako. Nola munduan ainbeste gauza eder? Au zion berekiko, eten gabe.

Eta noizpait ere iritxi ziran Loiola'ra, Iñaki Donea'ren etxe santu maitera. Emen etzan aspertu Aita Iñaki, bertako gauza an-igarri guztien berri mutillari ematen, batez ere eliza eta Iñazio Deunaren etxe santua.

Egun gutxitan, San Iñazio eta Josulagundiaren edestia ondo-txo ikasita gelditu zan gure mutilla.

\*\*\*

Enara, bere usteetan, Euskera ikastera zetorren Euzkadi'ra, bai, baña Euzkadi'n, nun?

Aita Iñaki'k bere anai baten etxean utziko zuan. "Ergoien" zeritzan errixka batean. Loiola'tik ez oso urruti. Anai onek Mikel zuan izena. Basarri polit baten jabe zan. "Goikoetxe" zeritzaion. Inguruan oso ezaguna.

Bertan bizi zan, bere emazte zintzo Mari-Josepa eta lau seme-alaba jatorrekin. Aberatsak etziran, baña aien sukaldean etzan ogirik palta, ez berentzat, ezta ere, eskean zetorren iñorentzat.

Orregatik, pozik artuko zuten euren tellapean, Aprika'tik Euskadi'raño zetorren Enara, jakiñaz batipat gure Euskera ikasi naian zetorrela. Izan ere Mikel, etxeko jauna, oso euskal-zalea zan eta bai pozik saiatuko zala mutiko beltzari gure izkuntza erakusten. Bai orixe! Orrela egin zuan bere lau umeekin eta orregatik auek ain ederki mintzatzen ziran euskeraz.

Ez ori bakarrik. Erri artako apaiza, Don Juan, ura ere anima artzai jatorraz gañera, gure izkuntza biziromo maite zuan gizona zan, eta gai ontan asko ikasia. Une artan, Gotzai jaunak, bere elizbarrutiko apaizen urritasuna zala-ta, auzoko erri baten arreta ere bere esku utzita zeukan, naiz eta osasunaz ez ondo ibilli.

Apaiz onek asko erakutsi zion Enara'ri, naiz euskerari buruz, naiz kristautasunari. Sei illabeterako, elizan irakurgaiak ederki asko egiteko neurrian jarri zuan. Dana Euskeraz, alegia!

Mutikua berriz oso ezkeroneko eta leial agertzen zan dane-kin. Beti edozeini eta edozertan laguntzeko gertu. Naiz etxean, naiz elizan, berdin. Beizaitzen, baratzako atxurketan... meza laguntzen... edozertan. Orregatik, danak maite zuten. Nola ez ba? ain mutiko jatorral...

Noizik beinka, inguruko erriak ikustera ere eramaten zuten etxeoak. Ikusten zutenak, mutiko azal-beltza euren artean somatzean, asko arritzen ziran, baña arri ta zur gelditu ere bai, euskeraz mintzatzen zala -eta ain ederki oartzen ziranian.

\*\*\*

Ortan da ontan, tximista bezela zijoakin denpora Enara gazteari. Eta danen tamalez, etorri zitzaion epea eta berriz Aprika'ra itzuli bearra. Loiola'tik artu zuan albistea, andik illabete ingurura, josulagundiko bat bere errira zijoala mixiolari ete gertu egon zedilla, arekin batean, aruntza bidean jartzeko.

Eta ala gertatu zan. Sei bat atera agertu zan "Goikoetxe'n, mixiolari berria, eta biak batera atera ziran, Ergoiendik Aprika'runtz.

Agur eginda, emengo danak utzi zitunian, begi biak malkotan, bustita, oju au egin zuan Enara'k: Etorriko naiz berriz!

\*\*\*

Etorritako bidetik, laster ziran itzuli, euren aberrian. Ez dago esan bearrik nolako ongietorria egingo zioten bertan, bai Enara'ri, bai berak zekarzkin, Euzkadi'ko oparitxoeri. Izan ere, gomutakiz beteta bialdu bai zuten mutilla.

Au etzan aspertu egunetan, Euzkadi'n ikusi eta ikasi zituan ainbeste gauza edesten, batez ere ikasi zuan izkuntza berria: Euskera.

Bere lenengo lana ordea, Euskadi'ra eskutitz bat egitea izan zan, ainbeste mezede egin zizkioten guztieri eskerrak ematen.

Alditxo bat igaro zan erantzuna artu arte. Etorri zitzaion bai, noizpait, bañan ez atsegiña. Berak zionez, Ergoien Don Juan apaiza, bera ainbeste maite zuana il egin zala, esaten zioten bertan. Aspaldi omen zebillen makal, naiz da beti langille, eta orral...

Ala ere Ergoien'darrentzat oraindik berri latzagoa beste au zan: Aurrerantzian etzutela errian bertan biziko zan apaizik eukiko, apaizak elizbarutian gutxitu ziralako, alegia.

Berri au irakurtzean, berre barruan, zerbait lertu balitzaio bezela, "BAI"! esan zion bere buruari "ni apaiz egingo naiz". Bazirudin, aspaldi pakerik ematen ez zion korapilloa bapatean askatu zitzaioala, bere biotz ondoan.

\*\*\*

Ezeren zai egon gabe, agertu zion Enara'k Aita Iñaki'ri bere baitan artutako asmoa. Onek oso pozik entzun. Bereala asi zituzten Apaiztegira juateko gertakizunak.

Lenengo ikasketak Elizbarrutian bertan egin zezasken, bañan apaizak bereiziki bear dituan jakintza eta batez ere Teologia (Jainko-jakintza) auek Erroma'n burutzeko era, Aita Iñaki'k antolatuko zion, "Gregorio"na deritzaion Ikastetxe aundian.

\*\*\*

Urte batzuk igaro ziran bai, dana ondo burutzeko, baña orra or gure Enara apaizgintza artzeko gertu. Ikurton au bere erriko gotzaiak emango zion.

Meza berria ere an bere etxeko inguruan zoragarrigo ospatu. Eta begira!, egunean bertan, A. Iñaki'rekin solasean ari zala, nola mintzatzen zaion oneri: Gertu nago berriz Euzkadi'ra juateko, bañan oraingoan ez berriz itzultzekotan, bertan gelditzeko, an bertan apaiz izateko.

Aita Iñaki'k:

EEE???...

Bai, zuek andik onera etorri ziñaten... Nik orren ordez, ara juan nai det. An ere apaiz urritasuna omen dagota...

Gotzaien artean, bear ziran antolaketak egin bezin azkar, Enara apaiz berriak Euzkadi'ra bidea artu eta emen agertu zan, berak emandako itza bete naian, zera "BERRIZ ETORRIKO NAIZ!".

Emengo gotzaiak Ergoien'go elizaren ardura eman zion asteko, eta emen jarraitzen du zintzo. Leen bezela beltz-beltza, Jainkuak eman zion larru azalakin, bañan daneri argi egiten, bere jakinduri eta eredu onakin.

BERGARETXE'TAR JON JOSEBA

# ARANA ETA GOIRI'TAR SABIN

## Aurkezpena

Gaur berba egingo dausku Oñatibia'tar Manu, euskaltzale jator eta abertzale sutsuak. Oiartzundarra jaiotzez, eta albaiterua lanbidez, gaur Zarautz'en bizi dan euskaltzale zintzo au, "Arana Goiri'tar Sabin" gaitzat artuta, bere itzaldia emoteko etorri yaku.

Mintzagai erakarkorra, benetan, gaurkoa, galdutako aberria barriro emon eskuan gizandi orren oroitzta ta ekinztzak gogoan bizirazoteko, ta gure abertzaletasuna sendotzeko.

Euzkadi'ko edestian izandako gizonik andienak ondo merezi dau, gure biotzean leku bat gorde dagiogun maitasun eta esker onez.

Oñatibia'tar Manu'k euskerea ta aberriari buruz asko ta ondo idatzi izanez gaiñera, zeatz eta sakon azertu dauz gure Sabin'en gogo ta ekintzak, eta onen adigarritzat ez dozue besterik, bere idatzia "Euskaldunak zer nai degu ta zergaitik (Lo que exigimos los vascos y el por qu ) irakurri baiño.

Entzun egiozue ba, bere itzaldia oso jakingarria izango dalakoan.

## ZUBIRI'TAR IÑAKI K

## Gizon aundia

Arana eta Goiri'tar Sabin, gure MAIXUA, errietan noizean bein sortzen dan gizon aundi oietako bat degu.

Fueroa erabat galdu eta euskaldun danak buru-makur eta kezkatu zeudela, Euskalerra'ren egoera ta izaera argi ta garbi ikusi, eta garrantzi aundiko bi aitormen egin zituan: EUSKOTARREN ABERRIA EUZKADI DA, ta bestea, EUZKOTARREN IZKUNTZA EUSKERA DA.

Besterik egin izan ez ba' lu ere, bere bizian naikoa egiña zuan.

Gaurko nere jardun ontan, Sabino'ren nortasuna agertu nai nuke, eta ortarako, bere bizitzaren berri eman ez, bere argitasun, bere kemen, bere ausardi eta bildurrik-eza, eta Euzkadi ta euskeraganako maitasunak ikusiko ditugu.

Gai asko ikutu nai eta motx-motx aitatu bearko geienak.

## Gurasoak

1865'ko urtarrillaren 26 an Bilbao'n jaiou zan.

Gurasoak dirudunak; aita itsas-ontzigillea, beste adiskide batzuekin Euskalduna lantegia sortutakoa.

Karlista izan, eta karlisten guda-bitartean lan asko egin-dakoa: arma-billa Ingalaterra'ra joanaz ibillia.

Karlos erregeak guda galdu zuanean, igesi Donibane'ra joan bearrean aurkitu zan.

Sabino'k zortzi urte zituala, Bilbao utzi ta Bayona'ra joan ziran bizi izatera.

Bere anai Koldo'rekin batera, Beterramite'n ikastetxean ikasten asi. Bi urtez an egon eta berriz Bilbao'ra. Amaika urterekin, Orduña'n jesuitak duten ikastetxera.

## Ikasketak

Orduña'ko ikastetxean, mutil zintzo eta argi agertu zan; antzerki lanetan oso yayua; baita pintura-lanetan ere.

Amalau urte zituala, bere nortasuna ta adimen argia, ondo aski agertu zuan, liburuetan zetorren loreen banaketa edo klasifikazioa ondo ez zegoala eta berak berekabuz beste bat egin eta irakasleak bai ontzat eman ere. Txorakeria dirudi, baiña ori ez du edozeiñek egiten.

Bere ikasketak ondo baiño obekiago egin zituan, baiña etxean karlisten kontuak entzun eta beste ikasleekin sortzen zituan eztabaidengatik, "el conspirador" izena eman zioten.

## Gaxotu

Amabost urte zituala, Orduña'n ikastetxean gaxotu, eta ain gaizki ikusita, jesuita batek ala galdetu zion: oraintxe il nai al zenuke?

Ez! erantzun Sabino'k, baiña danak etsita zeuden: tisis galopantea zuan.

Berak ala idatzi zuan: "Nere aurrean Begoña'ko Ama'ren irudia zegoan eta arren da arren, sendatzeko eskatu nion".

Illabete osoan gaxorik egon ondoren, otoiitzean zegoala, kordea galdu ta iltzat eman zuten, baiña bat-batean sendatu ta gaitzaren zantzurik gabe, siñalerik gabe gelditu zan.

## Sabin abertzaletzea

Sabino karlista zan, baiña ez Karlos erregearen zale zalako, onek euskaldunen Fueroak ekarriko zituala esaten zualako, baizik.

Amazazpi urte zituala, bere etxeko lorategian bere anai Koldo'rekin izketan ari zala, onek ala galdetu zion: Euskaldunok españiarrak al gera? Ala ba'da, zergatik guk Fueroak eta besteak ez? Gu ez gera españiarrak, ez odolez, ez izkuntzaz, ez oituraz ere; españiarrak ez ba'gera, zertarako naastu españarren gauzetan?

Bere anaiaren arrazoiei erantzun onik eman eziñik, bat-batean ezin-ba aldatu, eta alaxe agindu zion: "Bizkai'ko kondaira ondo ikasiko det eta egiaren atzetik joango naizela itz ematen dizut".



Urte osoan ikasi ta ikasi jardun, eta ondo konturatu zanean, ala esan zuan: "Etxekoak, adiskideak, ondasunak eta bizia bera galduko ba'dituzte ere, naizen eta dudan guztia Bizkaya'ri eskeintzen dizkiot, eta berea duan askatasuna lortu arte lan egingo dudala, ziñ egiten det. Jaungoikoa eta Lagi-Zarra izango da nere bizi guztiko elburua".

### "Elburua Jaungoikoa"ren esan-naia

Emezortzi urterekin, Euzko Alderdi Jeltzalearen oiñarriak jarri zituan. Jaungoiko ta Lagi-Zarra elburua, ez zan berak asmatua. Euskaldunak aspalditik zutena, baizik. Berak, Fueroak itza, Lagi-Zarra biurtu zuan.

"Elburuko Jaungoikoa" itz orrek, ez du Elizaganako menpetasunik adierazten. Euskaldunak, antziñatik, beti berezi izan zituzten Elizako kontuak eta errigintzakoak; beti itzal edo begirune osoarekin, baiña bakoitza bere bidetik ibilli oi zan.

Sinismen aitormena bai, baiña, batez ere, berdintasun aitormen bat dala esango nuke: Jaungoikoa danon gaiñetik eta beste danak, agintariak eta menpekoak, danok berdink, danok anai.

Gogoratu bestela Agur Jaunak abestiak diona: "Danok Jainkoa'k eiñak gire, zuek eta, bai gu ere". Abesti au, batik-bat, ongi-etorria emateko izan oi da, ta bide batez gogoarazi, agintari izan arren, ez dala besteak baiño geiago.

Sabino oso elizkoia zan, baiña Eliza'ri laguntzeagatik, ez zuan sekula erria ukatu; bakoitzari berea ematen zekian.

### Iru erabaki nagusi

Bere burua erriaren alde eskeiñi zuanetik, zer egin eta nola jokatu asmatzen asi zan; berealaxe, iru erabaki artu ziruan: Lenengoa, euskara ikastea, ez bait zekian euskeraz; bigarren, euskeraz ez zekitenei erakusteko, eleizti bat egitea; eta irugarren, euskaldun danak ikurriñean, bere erriaren askatasun bidean elkartzea.

Jo ta ke euskera ikasten asi zan eta urte betera, gibeletik gaxotu. Bi urte luzetan oe aldetik, egon bear izan zuan.

### Bartzelona'n ikasketak

Ondoren, Bartzelona'ra, lege-gizon izateko ikasketak egitera: ez zan bere gogokoa, baiña aitak ala nai zuala ta alaxe asi zan. Meza egunero entzuten zuan.

Poz aundirik gabe ikasten zualako, azterketa egunak iritxi arte, bere ametsetan eta beste ikasketak egiten alegintzen zan: Ciencias naturales eta Filosofía y Letras, tartean katalanistekin bat egiñaz, eta beti, Euzkadi'ren askatasuna burutik kendu eziñik.

Udaetan etxera etorritakoan, Lege-zarren liburuak eta Kondaira gaiekoak zituan bere eskuetan.

### Euskera alorreko idaz-lanak

Euskera lanetan ere aurrera doa, eta "Gramatica elemental del euskera bizkaino" gertuzen asiko da; 200 orrialde idatzi zituan eta antxe gelditu zan.

Edozein aitzaki ona zan beretzat, Bizkaya agertu ta bere alde lana egiteko. Balendin Berriotxoaren ezurak Jaipon'dik Barcelona'ra Elorrio-bidean ekarri zituztela ta, Barcelona'n zeuden euskaldunak geienak bildu ta kale-agerpen edo manifestazioa eratu zuten, Gora Berriotxo eta Gora Bizkaya ojuka.

"Etimologias eusk ricas", "Pliegos euskerofilos" eta "Pliegos historico-politicos" idatzi zituan; lan sakonak eta azterketa aundiak eskatzen zituztenak irurak.

Ontan, Bilbao'ko Aldundian euskera-irakasle bat bear zutela ta, Unamuno, Azkue eta beste iru lagunekin, Sabino ere aurkeztu zan: Azkue'k irabazi zuan.

Bere gibeledu miña sendatzeko, Vichi'ko urak artzera joan oi zan, eta etxeruntz zetorrela, basurde-eiztari purrukata izan eta, Saint-Etienne'n eskopeta bat erosi zuan.

### "Cuatro glorias patrias"

Bitartean, "La Abeja" Bilbao'ko izparringian, "Cuatro glorias patrias" izenarekin, lau idaz-lan idazten ditu. Bizkaitarrak bere kondairan izandako lau burruka edo gerren agerpen bat zan; bizkaitarrak sutu nai zitun, baiña izparringiak zabalkunde aundirik ez zuala ta iñor gutxi jausi zan.

Zerbait aundi egin nai du ta patxaran erabakitzeko, Loyola'ra joan eta Gogo jardunak egiten ditu. Egunetan ausnartu ditu bere barruan zituan iritziak eta etxeratutakoan, "La Abeja" izparringian idatzitako "Cuatro glorias patrias" laurak batera bildu ta "Bizkaya por su independencia" izenarekin liburuxka bat argitaratzen du.

Euskaldunori egindako irrintzi luze bat gertatu eta ikaragarrizko arrakasta izan zuan. Erriak bere kondaira ikasi bearra zuala adierazteko, "zeure burua ezagutu ezazu" erabilli oi zuan.

### Larrazabal'go itzaldia

"Bizkaya por su independencia" liburuxkak izandako arrakasta ainbestakoa izanik, bere iritziak aoz-ao entzun nairik, Bibao'ko ogeita iru jauntxok, Begoña-ondoan zegoen Larrazabal izeneko baserri-jatetxe batean, apari bat eskeiñi zioten.

Aparia bukatutakoan, bere exerlekutik jeiki eta idatzita zeraman itzaldia irakurri egin zuan. Bizkaya'ren egoera larria, argi ta garbi adierazi zien.

Espaniarren mende eta gure Fueroak ankaperatuta zeudela; iñor ez zuala bere askatasunaren alde ateratzen; garai artan, zortzi alderdi politiko zerala Bizkaya'n eta bat bakarrik ere ez bizkaitarrik; danak atzerrikoen aldekoak zerala.

Zerbait egin bearra zegoala; lan igaragarria izan arren, bizkaitarren laguntzarekin aurrera ekingo zuala; beretzat ez zuala ezer nai eta bere bizia, bein eta eun aldiz, pozik eskeintzen zuala, erria bere buruaren jabe egiteagatik.

Gora Bizkaya'ko askatasuna oju egiñaz bukatu zuanean, batzuk goraka eta besteak ixilik.

Laister sortu zan ixkanbilla maikideen artean, iya burrukatzeraiño.

Azkenean, baretu ta naiko kezkatu eta buru-makur, ixilik etxeratu ziran.

Andik zortzi egunera, berriz, beste apartatu bat prestatu nai izan zuten, baiña Sabin'ek ez zuan nai izan.

### Idatzitako orrien bearra: "Bizkaitarra"

Sabin ez zuan uskeri batekin ikaratzan zion oietakoa, eta Larrazabal'ko gertakizunak asko naigabetu arren, andik bost egunera, "Bizkaitarra" izenarekin, euskeraz eta erderaz idatzitako orria argitaratu zuan.

Bizkaitarra zion, baiña euskaldun guztiei eskeñia zegoala laister ikusi zuan, Madrid'en Gamazo ministroak Naparroa'ri diru-itun edo "concierto economico" kentzea eskatu zuean.

Naparrek gogotsu jeiki ziran, eta baita Sabin ere, "Bizkaitarra" orriaren irugarren zenbakian Naparroa'ri egin nai ziotenak, Euskalerrri osoa mindu zuan, eta egun aietan "Orfeon Pamplon s" Bilbao'ra etorri zala, danak bat eginda, erri osoa piztu zuan, batez ere Gernika'n Gernika'ko Arbola ain egoki ta sutsu abestu zutenean.

Andik amaika egunera, Donostia'n bertako musika-bandak Gernika'ko Arbola jo nai ez zuala ta, "Vivan los Fueros" eta "Muera Sagasta" oju egiñaz, ixkanbil aundiak sortu ziran.

Guardia Zibillak tiroka lagun batzuk il eta urrengo egunean erria Erriko-etxearen jabe egin eta militarrek etxeratu arazi zituzten; andik aurrera, Gernika'ko Arbola eresia, igandero jotzen zuan.

"Bizkaitarra" orriak lan aundia egiten zuala eta agintariak nundik galeraziko zebiltzan eta bein baiño geiagotan baitua, jasoa izan zuan.

Ontan, Melilla'n gerra sortu zuan eta laugarren zenbakian ala zion: "Zer eskubiderekin daude españiarrak Marruekos'en? Indarrez mendean artu zutelako? Ba, orain marruekostarrak berea dan zerbaite, indarrez jabetu nai dute".

Bitartean, Naparroa'ko burruka aurrera doa; Naparroa'ko Aldundia Madrid'a joan eta burruka gogor egin ondoren ezer konpondu ez zutela ta, Kastejon erriko geltokira bildu ziran naparrek arrera bikaiña egitera; aien artean, beste 40 bizkaitarrekin Sabin agertu zuan, "Bizkaitarrak Agurreiten deutse Naparrei" zion oyal zuri aundi batekin.

Gero Iruña'ra igo eta Sabin beste zazpi bizkaitarrekin, agintari bezela artua izan zuan.

Sabin'en anai Koldo'k Iruña'ko kafetegi batean egindako eusko ikurriña lenengo aldiz, Kastejon'go gertakizun ontan agertu zuan.

### Lenengo Batzokia eta EAJ'ren Araudia

"Bizkaitarra" orriak bere lanari jarraituaz, amargarren zenbakian, 1894'ko lorailaren 24'ean, "Euskaldun Batzokiaren" araudia agertu eben: Alderdiaren oiñarria bera izan zuan: Jaungoikoa eta Lagi-Zarra elburu.

Lenengo Batzokia, Korreo kalean jarri zuten, eta bertan txistua jo eta dantzaz ibilli ziralako, etxe artan laugarren

bizitzan bizi zuan betek salatu, ta 500 pezetako zigorra eman zioten; ordaindu nai ez eta espetxera lenengo aldiz eraman zuten, bide batez "Bizkaitarra" orria galerazten zutela. Bi urte ta iru illabetetan, 32 zenbaki agertu zitun. Azken zenbakia, 1895'ko IX'ren 9'an.

Ez zuan errez limurtzen zana ta len baiño gogorrago ekin zion burrukan.

1896'an bere libururik ederrenetakoa idatzi zuan: "Lecciones de ortografía del euskera bizkaino".

Karlisten asmoak salatzeke ta ezerezteke, "El Partido Carlista y los Fueros vasco-navarros" izen-buruarekin, aien bidez gure Fueroak eskuratuko ez genituala adieraziaz, idazlan luze ta mamitsua argitaratu zuan; lendabizi 10.000 ale eta geroxeago beste 5.000 zabaldu zituan.

Erriarekin zuzenean ar-emanetan egoteko aldizkari baten bearra ikusirik eta "Bizkaitarra" galerazita, 1896'ko lorailaren 2'an, "Baserritarra" izenekoa aldizkari agertu zuan. Emertzotzi zenbaki atera ondoren, au ere agintariak galerazia izan zuan.

### Bigarren Batzokia ta "El Correo Vasco" izparringia

Lenengo Batzokia itxita zegoalarik, milla ta eun bazkide egin eta beste Batzoki bat irikitzen du, eta 1899'ko ekaiñaren 4'an, "El Correo Vasco" izeneko aldizkaria sortu. Lau illabete besterik ez zuan irauan eta 103 zenbaki atera.

Bitarte ontan, —au ere esan bearra dago—, 4.500 autarkirekin, Bizkai'ko Aldundiko Aldun irten eta bertan lan ikaragarria egin.

### Bere biotzeko kontuak

Erdalduna zuan emakume batekin maite-mindu zuan, baiña bere buruari uko egiñaz, atzera egin zuan.

Emakume ori Arjentina'n ezkondu zuan, eta izan zituan bere iru seme-alabei Sabin, Koko eta Miren izenak jarri zitkiela ikusirik, adiskide on gelditu ziralako ikusten da.

Ezkontzeko, baserriko neskatx bat aukeratu zuela ta bera ain etxe onekoa izanik, bere lagun asko erdi lotsatuta bezela ikusi arren, berak aurrera egin eta Lourdes'en, ixillean ezkondu zuan. Bertan gaxotu, eta etxeokoa joan bear izan zuten zaitzera.

Sendatutakoan Sukarrieta'ra joan zuan atsedean pixka bat artzera.

### Euzkadi aldizkaria sortu

Baiña bere asmoak aurrera joango ba'ziran, izparringi bat, eguneroko bat bear zuala, eta alegiñak egin arren, egunerokoa ez baiño Euzkadi izeneko aldizkaria sortu zuan.

Adiskide askok itz onak bai, baiña iya iñoren laguntzarik gabe, bereralaxe itxi bear izan zuan.

### Azkue ta Sabin

Azkue'ren "Bizkai'tik Bizkai'ra" opera abestu zanean,

Sabin pozik euskal kutsukoa zalako eta omenaldi antzean, urrengo egunean bazkari bat eskeñi zioten.

Azkue'k ala omen zion: "Ama daukanak, zertarako dau ama-ordea?".

Bazkari ori antolatu zutelako, 200 pesetako zigorra erantsi zioten Sabin'i.

Bat dala eta bestela dala, lau aldiz prozesatua, epaitua izan zan.

Sabin'ek bere asmoak argi ta garbi adierazten zituan: "Galdutako askatasun-eskubide guztiak gureganatu arte, ez gera geldituko; erri aske bat, libre bat izan nai degu".

Gero, Bizkai Buru Batzarra sortu zuan, bera lendakari zala.

### Cuba'ren askatasuna ta espetxea

Sabin'en nortasuna nolakoa zan adierazteko, Ipar Amerika'k Cuba'ri askatasuna eman ziola ta, 1902'ko V'ren 25'ean zorionak emanaz Washington'era urruti-dazki edo telegrama bat bidali zuan.

Bilbao'tik ara bidali bear zuan langilleak, bere egitekoa bete bearrean, agintariei erakutsi, ta Euskaldun Batzokiya itxi, bazkide mordo bat Sabin aurrean zala espetxeratu egin zituzten; geroxeago bazkide guztiak aske utzi ta Sabin bakarrrik utzi zuten barruan.

Zortzi milla lagunek izenpetuta, bere askatasuna eskatu zuten: alperrik.

Oyartzuar Pikabea aldunak alegiñak egin zitun Madrid'eko agintariekin: oso gaxo dago ta espetxean bertan iltzeko arriskuan gaiñera.

Ministroak, ixil une baten ondoren, ala erantzun zion: "España'ren pakeak ondo merezi du gizon baten bizia".

Auzian 8 edo 10 urteko espetxea eskatzen zioten; errurik aurkitu ez, eta aske utzi zuten bitartean, bost illabete eta zortzi egun igaro ziran. Auzia gora eramane zuten eta berriz espetxeratu baiño len, Donibane'ra igesi joan zan; gero Vixhy'ra.

Azkenean, Supremoan ere errurik aurkitu ez eta oso gaxo zegoala etxeratu zan.

Exerita zegoala urdailleko miñak lasai idazten uzten ez eta ortarako, atril batean zutik idazten zuan.

### Zalantzan

Erabat lur-jota, zer egin ez daki; buru-makur, dana alde batera utzi naiean ikusten da, baiña, berealaxe burua jaso, eta Alderdikoekin bat eginda, "La Patria" izenarekin aldizkari berria sortzen dute; 1901'ko urrillaren 27'a zan, eta Sabin il arte iraun zuan.

Ipar Ameriketako Lendakariari bidalitako urrutidazkiagatik espetxean zegoala, –bost illabete eta zortzi egunean egon zan–, arteraiñokoan gertatutakoak ausnartuaz, auxe idatzi zuan: Alderdi politikoa sortzeko; billerak egiteko eta aldizkari bidez zabalkundea egiteko eskubideak, erabat oinperatu zizkioten.

Auteskundeetan askatasun osoz jokatzea galerazia ikus-

ten zuan, eta azkenik, erriak aukeratutako ziñegitziak ere, beren lekuetatik jaurtiak ziran. Guzti ori, Madrid'ko Gobernuaren izenean.

Ikuspegi illun orrek bultzata, noski, espetxetik bertatik, 1902-6-29'an buruan zerabilkin asmoaren berri, La Patria aldizkarira eta bere anai Koldo'ri bidali ziron.

Bi itzetan au: "nere asmoa idatzi, eta iru edo lau aberztaleei ixillean adieraziko diet, ekintza bukatu baiño len Jainkoak eramaten baldin banau ere, beaiek jarraitu al dezaten.

Nere izen ona, erabat itzaldua geldituko da, eta ainbeste nekeen ondorioaz jasotako ekintza, deseginda.

Asmo berri au aurrera eramateko, alderdikideek neregane uste osoa dutela adierazi ondoren, erakunde berriaren araudi eta oiñarriak nik idatziko nituzke.

Sabin il baiño sei illabete lenago, asmoa erabat lurperatuta gelditu zan; ez dakigu, bear ainbatek erantzun ez zutelako, edo berak, berez, bertan bera utzi zualako.

"Zeure burua ezagutu ezazu" erabilli zuan.

### "Cuatro glorias patrias"

Arrigorriaga, Gordexola, Otxandiano eta Mungia'n izandako burruken agerpenak ziran, bizkaitarrak lo-zorrotik atera eta abertzaletasunez sutzeko asmoz, idatzitako lau idazlanak.

Adierazgarri, ara emen nik euskeratuta, Arrigorriaga'ko burrukataz idatzitakoaren zati bat: "españiar gudarostea Ordoño'ren agindupean, ixil eta makur, Orduña eta Amurrio'ko aranetan barrena, Luxaondo'ko belardietan sartzen dira. Mendi-goietan dabilzan artzaaien begi-biziak, Izarra eta Orduña'ko mendi-gaiñetik ikusten dituzte.

Armatutako atzerritarra urrean dagoanaren berria, mendiz-mendi, baserriz-baserriz zabaltzen dute.

Inguruetako Bizkai'ko mendi-gaillurretan laister entzuten da erne egoteko eta gudarako deya, azken aran eta menditar-te guztietara iritxiar; bizkaitarren biotzetan burrukarako sua pizten da.

Erri eta ballada bakoitzak laister gertutzen du bere gudari-taldea, txikia, baiña bizartsu ta burrukalaria, eta atzerritar-rrak bere oiñak Bizkai-lurrean ipiñi aurretik, Padura ta Ugao'ko mendi-gaiñak betetzen dituztela, nekazari, arrantzale, errementari eta artzaiek gudari ausarta biurtuta, burruka asteko irrikitzen aurkitzen dira, españiar menderatzaillea bere lurraldeetaraiño atzera bidaltzeko, edo Bizkaya'n sartzen ba'dira, beren zerraldoen gaiñetik igaro bearke dutelako erabaki sendoarekin.

Ordoño ausarta, ibai ertzetik aurrera doa, baiña Padura'ko ibar zabalera sartu bezain zoriz, mendi-gaiñetik datozen turuta-otsak entzundakoan gelditu, eta eusko-gudarien irrintzi eta karraxiak txundituta uzten ez ba'ditu, burruka askotan oituak daudelako da, baiña Bizkai-lurra laister odolaz bustiko dala ba-dakite.

Tximista bezain azkar, leoia antilopearen gaiñera erori oi dan arintasun eta trebetasunarekin, atzerritar menderatzailleari erasotzen dio eusko-abendak berekin duan bizitasun,

yayotasun eta indarrarekin, jo zauritu eta illaz, aldamenara saiestu, atzera yauzi eta berriro erasoko dio".

Bizitasun onekin idatziak daude, Arrigorriaga, Gordexola, Otxandiano eta Mungia'ko burrukaldiak. Laurak bat egin da, 1883'ko San Andres egunean, oraantxe laister eun da bat urte, abertzaletasuna ezagutzen ainbeste lagundu zion bere anai Koldobika'ri eskeñiaz, "Bizkaya por su independencia" izenarekin bilduna bat argitaratu zuan.

### "Lecciones de ortografía del euskera bizkaino"

1896'an argitaratu da eta 307 orrialde ditu. Ain mamitsua eta aberatsa dalako, garai artan, "urrezko 300 orriko liburua" izenarekin deitua izan zan.

Euskera alorrean egin dan libururik sakonena, bikaiñena eta ederrena dala esango nuke.

Bere gaiak, auek: izkien ots eta irudiak; ortografia eta abost-izti edo fonetikako ikaskayak; euskera-idazkeran orduarte erabillitako irudiak, eta lan ontan jardundako Aita Arana, Euskalerra aldizkaria, Kanpion eta Azkue'k izan zituzten oker eta akatsak; euskalkien bateratzea nola egin bear den, eta atzerriko itzak nola erabilli bear diran adierazten du.

Eta nola adierazi? Zentzuz, argi, xeetasun guztiak emanaz eta arrazoituaz.

Ara liburu ontan Luis Elizalde euskalzaiñak diona: "Euskeralojia berrian egin dan libururik bikaiñenetakoa (una de las mas grandes obras, dio), Arana eta Goiri'tar Sabin'en "Lecciones de ortografía del euskera bizkaino" da, neurriz-gaiñeko (colossal, erederaz) adimen eta kemenez sortua.

Euskerarentzat Arana eta Goiri bat, eun Cervantes baiño geiago da, eta "Lecciones de ortografía del euskera bizkaino, amar milla Kijote baiño geiago".

### Euskalkien bateratzea nola egin

Dituan gai guztien berri emen ematea geiegizkoa izango litzake, baiña duan gaurkotasunagatik eta duan garrantziagatik, euskalkien bateratzeari buruz diona esan gabe ezin geldituko naiz.

Ala dio: "Iztilari batzuk, euskalki guztiak bat egite aldekoak nabari dira, oiñarrizkoak eta bizirik dauden itz eta esaldiz osatuaz; Literaturako euskera izango litzake.

Beste batzuk, literario-euskera au, euskalki eta euskalki-aldaketa guztiekin egin bear litzake, eta ala, bizkaiera arrunta eta literarioa, gipuzkera arrunta eta literarioa eta abar izango lirake.

Ez bat eta ez beste, ez det uste bide onak diranik; era ortan, baserritarrak euskera itsusi eta motza itz egingo lueke, eta ikasiak eta kaletarrak, landua eta aberatsa.

Ori naikoa ez dala, euskalki danak bat biurtu ezkeru, euskerak mendez-mende bereganatuaz jaso dituaun ainbat eta ainbat aberastasun, bat-batean galduak lirake, eta bestetik, bide egokia aukeratua izan dan segurtasunik ez genduke izango, batez ere, bateratze lan ori, itzen sorrera alorrean (materia etimolbica) ezer gutxi edo ezer ez dakien esku

utzi ezkeru, oiek beti, ugarienak eta ausartenak izan eta izaten bait dira.

Nere iritziz, egin bear litzakena au da: Lau euskalki bereziak ditugu: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta zuberera; ba, lurralde bakoitzean, emen eta an sakabanatuak dauden euskera bizitik edo formas organikasetatik, gutxiena urrutitatuak dauden gaiekin, euskalki bat sortu, kaletar eta baserritarrentzat, danentzat, baztertuta gelditu diran erak, ezkutuaz, aztuaz.

Era ontan, Gipuzkera bakarra, Bizkaiera bakarra, Lapurtera bakarra eta Zuberera bakarra izango genuke, izkuntza alorrean, politikan ainbeste jarrarizaille dituan "dezberdintasunean batasuna" (variedad en la unidad, erderaz) lortuaz.

Iñoiz, euzko lurralde guztietarako euskera bakarra bear ko ba'litz, ori egiteko astia izango litzake, baiña gogoan izan, orrek, aurrez, lurralde bakoitzeko euskera-batasuna egiña izatea eskatzen duala, eta ortara irixteko, oraindik oso urruti gaude.

Baiña euskera bateratzea, euskalki-aldaketetik euskera bakarra egitea, oraintsu esandako arrazoiengatik ez da konbeni, ez da bearrezkoa, lurralde bakoitzekoak besteetakoekin alkar-ulertzeko, egiz, ez dago ainibesteko eragozpen eta zailtasunik eta; oso ezberdintasun txikiak daude euskalki batetik bestera, eta guztia, euskaldunok bakoitzak bere euskalkia gramatika eran ezagutu ezkeru, eragozpen guztiak uxatuak leudeke.

### Atzerriko izenak

Atzerriko izenak euskeraz nola idatzi bear diran arazoa, nere iritziz, —dio Sabin'ek—, erri bakoitzean idazten diran era berdinean idatzi bear dira; orrela, Ingalaterra, England idatzi bear da, eta ez Anglaterrerr frantzeraz, Ingalaterra espaiñeraz eta Ingalaterra euskeraz".

Entzun dezutenez, beti bezela, argi, zeatz, eta bikain arrazoituak.

### "Abando'ko neologo aundia"

Erdal-itx asko erabiltzen zirala eta, euskera gaurkotu eta aberastu nairik, itz berriak sortzeari ekin zion, baiña ez nola nai, itxu-mustuan, buruz eta oiñak lurtean zitala baizik.

Ortarako, geienek egin oi duten bezela, erderari bakarrik begira egin bearrean, ondo zekien inglesera, —batez ere—, kontuan artuaz, oso itz egokiak asmatu zituan; adibidez, peribdico: egunkari, aldizkari idatzi bearrean, ingleserako newspaper'tik, ain egokia eta belarrietarako atsegiña dan izpar-ingia sortu.

Norbaitek esan dezake, garbizalekeri aundiegiz jokatu zuala itz orrekin, izpar orde albiste or zegolako, eta ingi orde papera erabilli eziñik ez zegolako, baiña izparringi itza naikoa zabaldua dagoala, orain ere, esango nuke.

### Itz barriak

Jemein'dar Keperin Sabin'en idaz-lan danak aztertzer-

koan, berak asmatutako 197 itzekin aurkitu zan, eta itzik geienak, gaur egun danok darabilzkigunak.

Ara emen batzuk: Abenda, aberri, abertzale, abesti, abots, aintza, antzoki, alderdi, autarki, auteskunde, askatasun, besaulki, batzoki, biztanle, burestun, deun, donetsi, edesti, egutegi, Euzkadi, euzko, euzkotar, gaizkatu, gotzain, gotzon, idatzi, idazkera, idazti, ikur, ikurrin, ingi, irakaskintza, irakasle, izpi, izpar, laterri, lekaide, lekaime, nekaldi, oben, orlegi, sendi, sorkalde, ugaztun, zaindari, zenbaki, eta abar.

Azkue aundiak bere iztegia egiterakoan, Sabin'en itzberri oien zerrenda eskatu ta erabilli zuala dio.

### Giza-izenak

Giza-emakumeen izenak ere sortu zituan, eta Deun ixendegi euzkotarra ere bai. Euskalerra'k ontzat emanak ditu, eta millaka euskal izen alderik-alde zabaldua aurkitzen dira.

Ori guztia ikusirik, Resurreccion Maria Azkue'k Sabin'i "Abando'ko neologo aundia" izena ematea, ez da arritzekoa.

### Sabin olerkari

Alor ontan zer maillakoa izan zan aiderazteko, zein egoikiagorik Lizardi ospetsua baiño?

Ara onek beragatik diona: "Aragi, odol eta giza-ezurrez egindako olerkiak asmatu zituan". Eta ala dala ikusteko, bere 33 olerkiak banan-banan irakurtzea naikoa.

Baiña, neretzat, ontan ere Sabin'ek bere jokaera bikaiña ederki asko erakusten du: Olerkiak idazterakoan, erri osoan eragin aundiagoa izateko asmotan, noski, olerki utsean utzi bearrean, abesti edo eresi bati lotuta idatzi zituan, abestiarekin batera errezago ikasi ta gogoratzeko, eta erri osoak batera abesteko eran.

Egia esan, abesti aukeraketan, euskal-sen aundiko abestiak aukeratu ere; euskal-abesti asko ezagutzen dituan batek egindako aukeraketa da.

Adibidez: "bizkaitarrak gara!", olerkia, "Kristo'renak gara" abestiari lotu zuan: "Urkiola'rako bidean", "Maritxu nora zoaz"i; "Mendiko negarra", "Ai ori begi ederra"ri; "Itxarkundia", "Elizara joan eta"ri; eta geiegi luzatu gabe, "Lenago il!", "Ara nun diran"i. Olerki-abesti au danok eza gutuko dezutenez, Sabin'i gure esker ona ta maitasuna eskeintzeko, danok abestu dezagun:

### Lenago il!

Ze ikusten dabe  
neure begijok?  
Au dana dakust  
galduta:  
Berezi, baso,  
muru ta mendi,  
uri baserri,  
ta dana...  
gaur maketuok

saloberiok  
ara birrindu  
dabela!  
Il naiago dot  
ikusi baño  
Aberriaren  
amaya!

### Batuaren kalteak

Sabin'en izen ona eta itzala baztertzeko, euskera batua sortu.- Euskaldun txepelen biotzetan euskeraganako maitasuna Sabin'ek piztu zualako; ots bakoitzari irudi berezia emanaz, idazkera erabat erreztu zualako; 1920'ko urtarillaren 8'an Euskaltzaindiak idaztarau oiek ao-batez onartu zitualako, 1936'an idazlerik geienak, –amarretik bederatzik, bai!–, Sabin'ek asmatutako idazkera bateratu ortan idazten gendun.

Guda ondorenean, gazteak burruka-bidean asi ziran, eta batzuk Lapurdi aldean lanean ari zirala eta, EAJ'ko EBB'ko buru zan Solaun jaunak gazteen batzorde bati, alkarrekin lan egitea eskeñi zion. Oien erantzuna auxe izan zan: EAJ'ko Jaungoikoa eta Lagi-Zarra elburutik, Jaungoiko itza kentzea, ta sozialista bezela agertzea.

EAJ'ko buruzagiek iñola ere ontzat eman ez zitelako ikusitakoan, bere aldetik ETA sortu eta jendea bereganatzeko asmoak artu zituzten, eta munduko iraultzalari guztiak bezela, beren idazkeran ezaugarri berezi bat jarri bear zuten; Lapurdi aldean eta H'a erabiltzen zutela ta, euskera batzeko aitzakiarekin, idazkeran H'a sartzea erabaki zuten.

Onekin, Sabin'en arau zoragarria –ots bakoitzak irudi bat–, zokoratuta gelditzen zan; bere itzal eta izen ona, beeratua; euskeraz idazteko bide zuzena Sabin'ek asmatua zanik, iñork ezin esango zuan.

Au ala dala egiztatzeko, Haranburu Altuna'k "La Voz de España" izparringian, izparlariak egindako galderari erantzuna irakurtzea naikoa: "Idazkera aldaketa politika alorrean zer ikusia bakarrik ez, ondorio eta garrantzi aundia izan zuela aitortu bearra det". Eta izparlariak ala jarraitzen du: Gure Euskaltzaindiko akademikoak Historian illezkor agertuko ez dirala, ikusia dago".

Are geiago, idazle orrek berak, bere "Literatura 72" liburuan orrerla dio: "Eusko iraultzaren sinbolo plastikoa, H'a da".

Orain arte esandakoarekin, euskera batua egiten ari diran bezela, batez ere, Sabin'en euskera gaietako zuzendaritza baztertzegatik bideratu dala, argi ikusten da.

### Oroitari bat noiz?

Sabin ain gizon arrigarria izan; eusko-abertzaletasunaren berpizkundearan iturria izan; bere bizi ta ondasunak Aberriaren alde emana izan; Lizardi'k zion bezela, "aragi, odol eta giza-ezurrez egindako olerkari aundia izan"; euskeraren alde berak egindako lanak ain bearrezkoak eta garrantzitsuak izan; nolatan Euzkadi'k, eta batez ere, Bilbao'k oraindik

oroitarri bikain bat eraiki ez? Danon esker ona agertzeko biderik egokienetako bat, berari dagokion giza-irudi eder bat eraikitzea litzake.

Resurrekzion Maria Azkue'k bere "Morfologia vasca" liburuan 295'gn orrialdean, orrela dio: "Jende-aurrean eman dako itzaldi batean, Arana Goiri'rentzat giza-irudi edo estatua bat eskatzeko oorea izan nuan, berak bakarrik gure izkuntzari, Euskalerra'n gutxienez, beste euskerazale guztiak baiño irakurle eta idazle geiago eman zizkiolako".

Beste asmo geiago ere izan dira, baiña orain arteraiño-koak ezerezean gelditu ba'dira, oraingoan aurrera eramaten ez ba'degu, gure ondorengoak, gure txepelkeria eta Sabin'enganako maitasunik-eza salatuko digute.

Nere itzaldi onen elburuetako bat oroitarri au danez, nere iritzia agertuko dizuet. Nun egin? Nor arduratu? Nola jokatu?

Nun egin? Ezbairik gabe, Bilbao'n eta enparantzarik ederrin eta obekien kokatutakoan.

Nor arduratu? Au ere ezbairik gabe, aste onen eratzaille zeraten Euskerazaleak erakundekoek. Alderdi abertzale ezberdiñak ditugu, eta Sabin Euzkadi osoaren gizaundia izanik eta danok esku ar dezagun, danok begi onez ikusten degun Euskerazaleak erakundeak bere gain artzea bidezkoa litzake.

Nola jokatu? Lendabizi, batzorde-eragillea sortu.

Bigarren, Bilbao'ko Udalari eta alderdi abertzale guztiei, asmoaren berri eman.

Irugarren, eusko-irudigillerik onenari oroitarria egitea eskatu, aurrekontua eta aurre-irudia zuenganatuaz.

Laugarren, bearko litzaken dirua jasotzeko, Euzkadi osoan diru-bilketa egin.

Erri osoaren eskeintza izaten alegindu; ezin ba'litz, Bilbao'ko Udala, Bizkai'ko Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren-gana jo.

Zer derizkiozute?

Eta gaurkoz, besterik ez.

## OÑATIBIA'TAR MANU'K

### Sabin'en idaz-lan danak

Etimologias eusk ricas. 1885.

Gramatica elemental del euskera bizkaino. 1885.

Pliegos euskerafilos. 1888.

Pliegos historico-polfticos. 7-IV-1888.

Pliegos euskeralogicos. 1892.

Bizkaitarra. 8-VI-1893.

Bizkaya por su independencia. 1892.

Tratado etimologico de los apellidos Eusk ricas. V-1895.

Lecciones de ortografia del euskera bizkaino. 1896.

Umiaren lenengo Aizkidia. 1897.

Lenengo egutegi bizkaitarra. 1898.

E1 Partido Carlista y los Fueros Vasco-Navarros. 20-II-1897.

Baserritarra. 2-V-1897.

EI Correo Vasco. 4-VI-1899 a 13-IX-1899.

Euzkadi. Marzo 1901.

Libe. 1902.

La Patria. 27-X-1901 a 28-VI-1903.

Patria. 5-VII-1903.

Grave y trascendental. 22-VI-1902.

Comunicado. 29-VI-1902.

Interview Gaceta del Norte. 29-VI-1902. Motivos: Pagina 2.186.

### Oñatibia'tar Manu'ren itzaldia izan zan atzo, Bilboko Euskal Astean

BILBAO. Oñatibia'tar Manu izan zan atzo izlari, Bilboko Eskolapioen ikastetxean egun oneitan egiten ari dan Euskerazaleak Alkarteak antolatu dauan Euskal Astean.

Arana Goiri'tar Sabin izan zan Oñatibia'k erabilli eban gaia.

Izen au entzunaz beste barik garrantzi aundiko gauzak jatorkuz burura eta gauza oneik ondo azaldu ebazan Oñatibia'tar Manu'k.

Euskalerra'k bere buru-jabeltza galdu egian kanpotik alegin aundiak egin dira urteetan.

Ori agertuko da gaur Arrien'dar Gregorio'k izango dauan itzaldian.

Eta apurka apurka gizaldien joanean geure eskubideak galtzen joan gara.

Galtze ori egoerarik larrienera eldu zanean entzun zan Sabin'en abost zolia: Euskaldunen Aberria Euzkadi da.

Arana Goiri'tar Sabin'ek gure kondairan izan dauan ikutua aundia izan zan eta arlo oneik dira gogoangarriak: Erri-gintza, izkuntza, abertzaletasuna eta abar.

Gure erriak jakin bear dau eta ez dau sekula aitzu bear eragin ori.

Orregaitik, benetan ederra izan zan atzo Oñatibia'tar Manu'k emon eban itzaldia.

Egun guztietan lez, itzaldiaren ostean alkar-izketa bizia ta bertsoak izan ziran.

Lentxuago gogoratu dogun lez, gaurko izlaria Arrien'dar Gregorio izango da eta Gernika'ko Batzarrak eta Bizkai'ko Jauna gaia erabilliko dau.

Euskerazaleak Alkarteak Bilbao'ko ta Bizkai guztiko euskalzale eta euskaldunei dei egiten dautse berbaldi oneitara etorteko. Mintzaldi oneik illuntzeko zortziretan asten dira, Alameda de Rekaldeko 19n. atean Eskolapioak daukaten ikastetxean.

Biar, barikuan, amaituko da aurtengo Euskal Astea. Azken berbaldia Zubikarai'tar Augustin'en esku izango da. "Euskaldunen abizenak" gaia erabilliko dau Augustin'ek.

EUSKERAZALEAK  
DEIAN AGERTUA - 93-11-17

# GENEAK ETA EUSKALDUNAK

## Entzunak

Rh'ri buruz esandakoa, berriro esan bear Giza-geneai buruz. Baña, lenengo galdera auxe da: Zer da Gene bat?

Joan dan urteko (1992) Urriaren amarrean, oraintxe amaika illabete, onelako au irakurri neban DEIA, Bilbo'ko aldizkarian:

"El pueblo vasco es el mas antiguo de Europa... afirmo ayer el destacado experto en gen tica Luis Cavalli Sforza".

Berrogei egun aurrerago (Irailak 3,1992), aldizkari orretan bertan, genetika-arloan irakasle diran Ana Maria Cobos eta Adolfo Lopez de Munian'ek itz oneik esan zituzten:

"La evolucion gen tica que hemos estudiado en los vasos no tiene nada que ver con los que hay en la Penfnsula".

Egia esan, nik oiek zer esan nai duten garbi-garbi ez dakit. Irakurrita neukan gai orreri buruzko liburuxka bat, "El Desaffo Gen tico" izenekoa, Jean Marie Moretti eta Olivier de Dinechin jaunek egiña.

## Iztegi-arazoa

Gauzatxo batzuek gogoratu ditut eta gauzatxo oneik euskeraz ipintzea da beste arazoa.

Orretarako Gure Azkue aundiaren iztegiak ez dit batereko argirik eman.

Mugica'renak, zer-edo-zertxo.

iztegi berriak erabilli ditut iru auek: "Giza Bizia" aita Carlos Goena'rena (1973), "Natur Zientziak" (Biologia Geologia) Jakin (1976) Arantzazu'ko frantzizkotarra, eta, 1982'garren urtean "Euskera Taldea" Bizkai-Senadalariek "Euskerazko Senda-Jakindi Izen-sailla" (Azterbide Saiaketa) izenarekin aterea.

A-B izkiak bakarrik dakar. Besterik ez dakit atera dutenik.

Beste iztegi kutun au ere izan det eskuarte, "Giza-Soiña", Olabide'tar Erramun'ek 1917'garren urtean aterea.

Gen izena euskeraz Jakin'ek bakarrik dakar: Gene. Besteak ez dakarte ezer. Beraz, euskeraz ere, Gen erabilli bear-ko degu.

Zorioneko Gen oiek bizi-ale barnean egon oi dira. Zer dira bizi-ale oiek?

Bilbo'ko Sendalarien "Bizi-ale" orreri Olagibel'ek (1917) Soin-kizkin eta Soil-xiskin esaten dio. Mugica'k, berriz, Kizkin eta xiskin; Goena'k eta jakin'ek, Zelula. Zelula orreri, Jakin'ek auxe erazten dio: "Bizidunen funtsezko unitatea". Bilbo'ko sendalariak "Bizi-ale" itza onela argitzen dute: Bizi=vida y Ale=unidad, semilla...

Euskera Talde'ko Sendalariak euren alegiña egin dute; baña, tamalez A eta B sailleko itzak besterik ez dauzkat eta

VI-VII'garren orrialdean billatu det aitatutako Bizi-ale itz ori. Olagibel'ek aurretik egin zuan bere lana eta ez txarra.

Onek adierazten digu jakintza berrietan gordiñik gaudela eta errezena dala, gauzak datozten bezela artzea. Erromatarrek gurera kultura berri batekin etorri ziranean orixe egin zuan euskerak: gauza berriak euren izenekin artu. Bear ba'da, beste egiterik ez zutelako edo...

Baña, beti ematen zioten euskerazko ikuteren bat: "torcular" esaten zuten latinez, guk itza murriztu eta "tolare" laga. Zeñek esango luke "tolare" itza euskalduna ez danik?

## Bizi-alea zer dan

Ikusi dezagun Bizi-ale, Soin-kizkin edo Zelula deritzan ori, zer dan.

Jakin'ek esan digu ori "bizidunen funtsezko unitatea dala". Bizidun guztiek bizi-alez egokiturik daude. Badaude biziale bateko bizidunak ere. Oiek dromosoma batekoak dira eta gen askokoak.

Genetikan esku-sartzea zer au da: Gen oien ondoan beste Gen bat sartu eta alebateko bizidun oiek izugarritzko bizitasunean sortzen diranez, era orretara esantzitako genea ere ugari sortu. Insulina eta orren antzeko sendagai batzuen lortzeak ortik du bidea.

## Azala ta barrua

Bizi-ale, Soin-kizkin edo Zelula orrek azala duen pelota baten antza du. Jakin eta Goena'k azal orreri Zelula-mintza deitzen diote; Olabide eta Mugica'k, berriz, Kizkin-azal.

Azal orren barruan "masa garden eta ligatsu bat dago", dio Jakin'ek eta, erderaren antzera, Zitoplasma deitzen dio; aita Goena'k ere berdin.

Baña, Olabide'k beste izen au ematen dio: Xiskin-mami eta Sor-mami (de "sorta", dio berak). Mugica'k ezer ez.

Bizi-ale edo Zelula orren barruan, beste pelotatxo bat dago. Gun deitzen diote Goena eta Olagibel'ek, Kizkini-gun Mugica'k eta Hun, Jakin'ek. Erderaz, Nucleo. Orrek badu bere azala (Membrana Nuclear), eta Gun-mintza deitzen diote Goena eta Olagibel'ek; Jakin'ek, Hun-mintza.

Gun-mintza orren barruan daude Kromosomak; eta ala deitzen diete Goena, Mugica eta Jakin'ek erderazko Cromosoma'ri; Olagibel'ek, berriz, Gun-aril.

Badu bere arrazoibidea Olagibel'ek orretarako, bi arirekin egiña bai dago Gun-aril ori marrazkillo edo karakol –eskillera baten antzera. Badu zintzilika epiñitako odolosten antza ere.

## BILLAKETA

Gun-aril edo Kromosoma oiek biñaka ipiñiak daude gizakien gorputzeko zelula bakoitzean 46 kromosoma; biñaka daudenez, 23 bikote. Gun-aril bakoitzeko 50.000 Gene. Ortxe dago ondorengoan etorkizuna.

Ori ez da sekulan aldatzen, eskua sartzen ez ba'degu tar-tean, "manipulazio"rik egiten ez ba'degu. Gen-talde aundiak dira Gun-aril edo Kromosomak.

### Itzen egokitasuna

Orain arte besteen itzekin jardun det, orain minutu batean neureak izango dira berbak. "C lula" erdal itza, latiña da. Caela latiñez, erderazko Celda da eta ortik ateratako Gela euskalduna. Celula da Celda txikia, Celdita, eta euskeraz Gelatxo.

Gelatxo bear luke Celularen euskal itza.

Gelatxo ori "biziaren funtsezko unitatea" dala dio Jakin'en Histegiak; baña, nik esango nuke Gelatxo ori "biziaren lenengoko azalpena dala".

"Funtsezko unitatea" esanaz, bi itz erdaldunak artzen ditu Jakin'ek: bata frantseza eta bestea latiña.

Baña, ez ditu itzak bakarrik artzen erderatik, baita pentsamoldea ere: "Funtsezko unitatea", or azpian dagoen gauza illun bat dirudi; "lenengoko azalpena", berriz, begien aurrean daukagun gauza bat da. "Funtsezko unitatea" ulertzeko erdera- ra jo bear degu; euskera utsetik ez degu garbitasunik aterako.

### Euskera ta erdera

Errixka batera etorri zan kanpotar bat eta onela galdetu zion bere erriko lagun batek:

Tu qu haces en ese pueblo?

Yo? Pelo cortando. Erantzun zion erdal itzekin; baña, euskal pentsakerakin: Zertan ari aiz erri orretan? Orixe zan erderazko galdera eta erantzuna ondo eman zion: Ni? Illena mozten. Yo? Pelo cortando.

Erri orretan astoen ferri famatua izaten da eta ijito asko agertzen zan astoei illea mozteko. Eta onela esaten zuten:

Ni, motxa illia. Euskerazko itzak, erderazko moldea: Yo corto pelo. Eta orregaitik edo, ijitoei motxailliak esaten diegu. Makiña bat orrelako ijituak bagaude gaur-egun euskaldun idazleen artean: Ezpañak euskaldun, baña burua erdaldun.

### Arrautza ta gelatxua

Arrautza baten itxura du Gelatxoak. Arrautza ere gelatxo bat da, borobil antzekoa. Badu kanpotik karezko azala eta azal gogor orrekin batera, badu barrutik mintza biguna ere.

Barruan zuringoa (citoplasma) eta barrurago gorringo borobilla, mintza inguruan duela. Or dituzue C lula ta Membrana celular, Nucleo ta Membrana nuclear.

Gorringo orren barneko aldean daude Kromosomak

(eskillera biurri baten antzekoak), bi ariz egiñak eta eskaille- ra-maillak dituztenak. Mailla oietan daude Geneak.

### Sortu eta galdu

Bizidun guztiek bi gauza egiten dituzte: Bildu eta Banatu.

Bilduz (anabolismo) sortu egiten ditu gauzak; eta Banatu erretzez (catabolismo) eta bien arteko neurrian (metabolismo) bizi da gure gorputza.

Bien arteko neurri ori apurtzen danean, okerra sortzen zaio gorputzari. Bilduz sortu eta erretzez banatu, orixe da gorputzaren etenik gabeko lanbidea. Sortu eta galdu. Sortu eta erre, etenik gabe. Erretakoak berriz ere sortu.

Sortze ori Geneen lana da. Gene bakoitzak sortzen du gai bat, proteina bat. (Euskal-iztegiek proterinari, proteina deitzen diote).

Gen bakoitzean dago proteina bat egiteko ordenamentu osoa, oraindik jakintsuentzat argitu gabeko illunpean dagoen agindu edo mezu berezi baten bidez (mensaje codificado).

Gure gorputz osoak izugarizko lantegi baten antza du eta geneek zuzentzen dute ikaragarriko naastea eta zailtasuna duten lan guzti oien kopurua.

### Jakintsuen araketak

Gene oietatik ateratzen dute jakintsuek, (nik ez jakin nola) Europa'ko erririk zaarrena gerala. Gauza berbera ateratzen dute genetatik eta odoletik. Eta, oiek ez dira atzoko ipuiak, gaur eguneko jakintsuen araketak, baizik.


Luigi Cavalli Sforza Genobatar jakintsuak dionez (DEIA, 25-V-1993), gene oietan daude giza-talde bakotzaren historia.

Geneen historia eta izkuntzarena, alkarreko ar-emanetan doazela dio.

Euskalduneri buruz onela ari zaigu: "Orain 30.000 urte euskaldun guztiek zuten Rh-eza, gaur egun eunetik 25-30'rek bakarrik badute ere; euskaldunak ez direnak, oiek eunetik 15 dira Rh gabek".

Odola eta geneak alkarrerkin datoz euskaldunen antxiñatasuna erakusten; 35.000'rik 10.000 urte bitarteko erri paleolitikoetatik omen dator zuzen-zuzenean euskalduna.

### Klonizazioa





Erderazko "embrinn" itzak baditu euskeraz bost berba auek: Burno, muskil, miniko, ozi eta ozio. Baña, zera esan nai du: emearen arrautza eta arraren azia, biak bat egiten dutenean, orduan ernaldutako egiten da bien arteko gelatxo edo zelula.

Ernaldutako gelatxo ori, zelula ori, ugaritu egiten da bi, iru, lau, bost, sei... Alkarretik banatzen ba'ditugu une orretan, berdiñetik gizaki berdiñak sortuko lirazke bi, iru, lau, bost, sei... Orixe da klonazioa. Oiek izango lirazke gizaki klonikoak, berdin-berdiñak, fotokopiak bezala, trokel batetik ateratako txanponak bezala...

Gaur egun klonazio-arazoetan asita daude eta ernaldutako azi bat ugaritzen asten danean, sei añako gelatxo berriak banatzen dituzte; baña, azi berri oiek ez dute sei egun besterik irauten bizirik.

Bide orretan asita daude, ordea, eta ez dute etsiko, ugari-tutako azi oiek euren elburua lortzen ez duten arte.

Egun aretan, gizaki klonikoak izango dira munduan.

Aurrerapenak dira eta aurrerapen guztiak datoz beuren akatsekin. Aurrerapena da, esate baterako, zuk aur bat sortzen dezunean, azi orren beste azi klonikoa izotzetan gordeztea, eta, baldin zure aur ori galduko ba'zenduke, bestea zeure barnean ernaldutako erian eta osotu. Orrela izango zenduke berriro beste bat ildakoaren berdin-berdiña.

Atzerapena izango litzake, despota batek, arrautza batetik eun serbizari berdin-berdiñak ateratzea, menpean edukitzeko edo burrukan egiteko... Atzerapena litzake, lenengo gelatxoak okerkeriren bat izan, eta eun okerkeri batera ateratzea...

Bizkiak antzeko dira; klonikoak, berriz, berdin-berdiñak.

**Gizakien ar-emetasuna**

Gizakien gelatxo edo zelula bakoitzak 46 kromosoma edo gun-aril dituela esana daukagu. Berrogeita sei kromosoma oietatik, bi dira gizakien ar-emetasuna erabakitzen dutenak.

Nola?

Emakumeen zeluletako bi kromosoma bereizi oiek berdiñak dira: X X eta gizonenak berriz, desberdiñak: X Y. Bi zelula, ar eta emea, alkartzen diran unean, bakoitza bi zati berdiñetan erdibitzen da.

Emeak erdi-bi eta arrak ere erdi-bi. Or daukazu lau erdi: emakumeenak biak dira X eta gizonenak bat X eta bestea Y.


Ernaltzean, erdi oietako bi, (bat emearena eta beste arrarena) alkartzen dira. Emearena beti izaten da X, baña arrarena X edo Y. Biak X ba'dira, sortutako aurrak, emea izango da; amaren X eta aitaren Y danean, berriz, ume ori arra izango da.

Seme ala alaba izatea aitak dakar bere bi kromosoma desberdin oietan: X eta Y.

Kromosoma, XX eta XY, oietan eskua sartzerik izango danean, orduan erabakiko dute gurasoek zer nai duten, ar ala eme. Bitarte orretan izadiak berak erabakitzen du zer izango dan, eta, gutxi gora behera, erdizka izaten dira ar eta emeak. Arrak ugaritzen ba'dira, esan oi dute zenbaitzuk, gerra baten arriskua sortzen omen da. Baña, gerrateak berak, zer ekartzen du bere sakelean? Ebro-erriberako soldadu aiek ebesten zutena gure anai arteko burruka itzal aretan:

"Si continua la guerra  
y los combates tan fuertes,  
se van a quedar las chicas  
al precio de los tomates".

ARRINDA'TAR ANES'EK





## GURA ETA EZIN ASTIRIK EZ

Prosaka, arineketan, lasterka, korrika, itota, denpora amaitzera doa eta ileroko lana amaitu barik daukat.

Paper zuria, idaz makina, ordenagailua –Jesus! Bizkaie-raz idazteko ordenagailu bat erabili bear! Non ikusi ete da olakorik–, idazkortza, arkatza, lumea... dana prest eta burua zuriz.

Zeozer esan bear eta esatekorik ez! Ainbeste gauza esateko eta une onetan bat ere ezjat gogoratzen! Danak esan gura, bat ere ez bururatu.

Nork, zerk, zeinek jarri nau egoera onetan? Derrigorrezkoa dot irakorlak jarrita daukan epea betetzeko, burua, matsa dolaran estututen dan moduan aestutu, arriko zapia biurtzen dan moduan biurtu, idiak probetan arria eroaten daben moduan burutik ideiaren bat ataratzeko?

Politikoa banintz errez eukiko neuke, zerbait polita eta ulertezina esan eta kito!

Gaurko idazle ospetsuren bat banitz ere, iztegiko berbarik zaillenak artu, joskerarik gatzena erabili, eta inork –au ere ulertezina dalako– irakumko ez dauan paper bat bete.

Baila zer esan? Noren alde edo noren kontra? Eta batez ere zertarako? Bueno, azkenengo au beintzat argi daukat: Aurreko baten esan nebana bete egin bear dot, gure baserritarrak esaten dabenez, emondako berbea zorra da.

Baina noren edo zeren alde edo kontra? Alde egin ezkeroko bataren baten kontra jartzen zara. Iñoren kontra joaterik ere ez dau merezi, kasurik onenean ez deusolako arurarik izango eta kasurik txarrenean arerio bat irabaziko dodalako, baina bizitzak berez emoten dau arerio naikorik geiago aurkitzen ibiltzeko.

Azkenean leenengo galderan aurkitzen naz, zer esan?

\*x~

Denpora aurrera, orduak igaro, minutoak galdu, egunak joan, egunak etorri San Blas joan da eta beragaz Deun Agate-, gero eta estuago, itoago nago.

Elduko ete naz sasoz?

Osagileek, bai biotzekoak, bai kirioetakoak, danak diño presak eta lasterketak "stress" dalakoa dakarreka, eta au gaisotasun askoren sortarazlea dala.

Baina eguneroko bizitzan dana da presa, arineketa, lasterketa, berandu ibiltzea, azkartasuna. Beti gabiltz presaka, zein lanera joateko, zein lanean, zein lanetik itzultzean -lana daukenak, ez daukenak, zoritxarrez, mundu guztiko denpora eta buru austearen jabe diralako, naiz eta lanik gogorrena eurak euki: lana bilatzea!

Etxera itzultzeko –futbol partidua Tvean–, gozaltzeko, bazkaltzeko, afaltzelko, lo egiteko... goizetik gabera arineketan! Badaukagu astirik bizitzak eskeintzen dauskuzan gauza zoragarriak bizi eta gosatzeko? Benetan merezi daben gauzak egiteko?

Noiz egon gara azkenengoz lagun arte batean nonbaitera joateko presa barik? Edo garrantzitsuago, emazte, senar, seme-alaba, guraso eta senideekin –Illetarik aparte, iñoiz alkartzen gara danok?– lasai egoteko bear dogun denpora guztia erabiliaz?

Bakoiatzak atarako dauz bere kontuak, baiña askotan gertatzen dana zera da: Geure buruari ez badeutsagu esaten, beste edozelako lanerako edo betebearrerako denpora ipintzen dogun moduan orretarako ere jartzeko, urbillekoekaz egoteko astia falta jaku. Urkoekin egon ezin eta gagozanean ere denporaz mugatuta.


Leengo baten beste osagile batek onela iñoan: "Gu beti gabiltz soinketa egiteko esanaz, eta ondo dabillenenak orretarako ez dauala denporarik erantzuten dau; baiña gaixotu eta bere burua estu ikusi ezkeroko agindua betetzeko, nondik edo andik astia aurkitzen dau, naiz eta eguneroko zer-eginetan bardin jarraitu".

Gu ere bizitza alaitzen duskuen "gauzatxo" orretarako denpora geiago bagendu, azken orduan beste mundura gozazanean, emengoan izten doguzanak lortzeko erbiltzen dogunetik kenduz, bearbada lasaigo eta pozago ibilliko giñateke.

Dana dala, erakargarriegiak dira begibistan ipintzen dauskuezan zenbait gauza abegirada beste alde batera zuzentzeko, naiz eta galtzen dogun ikuspegia obeagoa izan.

Amaitu dot, lana artu eta arineketan, presaz, itota, autoan jarri eta Olazar jaunarengana noa –ertzain jauna, ikusten banauzu eta idazlantxo au irakurtzen badozu, artu egizu nire abiadura azkarregiaren atxaki bezela isunik ez jartzeko–, berak ere arin-arin, laster, estu, korrika, irakorlara bialdu dagian, eta bein argitaratu ostean, "Correos" arduratu daiten zuregana, irakurle, lasai-lasai, trankil-trankil, presa barik astiro eta berandu, eldu daiten.

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
Kutxa. Bere berbea bete  
eta zure bear-izanak  
ulertzen dauzan Kutxa.  
Etorkizunera zabalik dagoan  
Erakundea, etenbako  
gora-gogoagaz  
bere erriko jenteari  
laguntza-gai osoak  
eskintzen dautsozana.  
Beti dago zugandik ur  
izkuntza bakar baten  
alkar ulertu daikegun.*

**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

150 PEZETA